

ENPRESAREN DESKRIBAPENA

Lehenik eta behin, gure proiektuaren izena ALPHA da. Gure enpresaren helburu nagusia, bezeroei beraien beharrak asetzea izango da, beraiek nahi dituzten arropa prendak (kamisetak, jertseak,...) aukeratzen eta modifikatzen/aldatzen, hau da, zuk zure prenda aukeratzen duzu eta gero, nahi duzun aldaketak egiteko ahalmena edukiko duzu.

Hasieran, denda on-line izango da baina hala ere bezeroekin bat egingo dugu eta beraiekin erlazioan egongo gara, beraien beharrak asetzeko eta prozedura guztia ondo ateratzen bada jakiteko. Prozesua martxan jartzen denean, Zara-ren marketing erudia erabiliko dugu, hala nola, dendak hiri erdialdean kokatuko dugu bezeroentzako esku egoteko. Gure lokala Espainiako hiri garrantzitsuetan kokatuko dugu, Bartzelonan, Madrilen, Donosti,... Geroago beste herrialdeetan handituko ginateke.

Web-orriari begira, zuk sartzerakoan diseinatu nahi dituzun arropa mota jarriko ditugu, adibidez, kamiseta bat nahi baduzu, kamiseta irudiari eman beharko diozu. Hori eta gero, zer markako eta zer formakoa nahi duzun kamiseta aukeratuko duzu. Guk emango dizuegu plantillak zuk aukeratu duzun kamiseta eta edozein aldaketa egiteko. Enpresa, geroz eta gehiago handitzerakoan, plantilla gehiago egingo eta sartuko ditugu, bezeroei aukera gehiago emateko. Materialari begira, arropa prenda batzuk garestiagoak izango dira, egitate horren materialaren arabera, hala ere, denetariko prezioak egongo dira. Web-orrian egindako diseinua bukatzerakoan, jarriko zaizu gutxi gorabehera noiz iritsiko zaizun paketea zuk jarri duzun helbidera. Horretarako, Fedex-ekin jarriko gara harremanetan, garraio-enpresa bat, dauzkagun pakete guztiak azkar eta ondo garraiatu ahal izateko eta bezeroak pozik egon izateko.

Orain arte esandakoarekin jarraituz, gure enpresa gero eta gehiago hazterakoan, hiri garrantzitsuetan estrategikoki kokatutako lokalak jarriko ditugu, erosle askori erosketa errazteko eta horrela gure bezeroen adina ere aldatzeko eta horrela bezero gehiago edukitzeko.

Gure enpresa, enpresa handien merkatuan sartzen denean, famatuekin harremanetan jarriko gara gure marka babesteko eta, horrela, askoz jende gehiagok gure enpresan arreta jartzeko eta jende gehiago erakartzeko.